

## Ez dezagun iparra gal

IKUSKARI ezin aproposagoa hautatu dute, nire ustez, getxotarrek, Ipar Euskal Herriko kultura ezagutaraztea helburu duen zikloan txertatzeko (*Iparra galdu gabe!*, urriak 4 – azaroak 4). Bidasoa arrakalatzat hartuta, hangoak eta hemengoak hurbiltzeko saio umoretsua ez ezik, gure kontraesanak –gure lotsak– nabarmentzen dituen parodia da *Bidaso: biga so*. Barreak barre, umorea umore, ipurdi agerian senti liteke ikusle minbera.

Ezagunak zitzaizkigun Pantzo Hirigarairen antzezpenak, antzertzeak eta ziriak. Ezagunak zitzaizkidan, bereziki hedabide honi esker,

Hegoaldeko euskaldunak imitatze-ko duen arte gupida gabea –ederki gorritu zizkigun masailak orain dela hamabost bat urte, Argia Sarietan aurkezle lanetan aritzea egokitu eta gipuzkoarren plantan hizketan hasi zitzaigunean, *eske* eta *klarro* gora, eta *eee* eta *jode* eta *pues* behera–.

Harenak ez bezala, sorpresa dira, zentzu honetan, Kike Amonarrizek taularako dituen dohainak, txiste kontalari Euskal Herri osoan aritu zitzaigunean edo aurkezle lanetan diharduenean, tankera hartu izan diogun arren.


Bikote honen irudimenetik datorrena hitzaldi umoretsua dela irakurriko duzu kultur zikloko esku-orrian. Akaso, Iparraldeko eta Hegoaldeko gazteen artean elkarren ezagutzaz egindako ikerketa burutsua duela oinarri, eta ikerketa sakon horrek, titulurik izatekotan, hauxe lukeela, Amonarrizen hitzak hartuta: “Benetan elkartzen gaituela uste dugun hori ote den gero benetan elkartzen gaituena edo ustez banatzen eta aldentzen gaituzten gauzak ote diren

azkenean benetan batzen gaituztenak”. Tesi doktoral potolo horietakoa bailitzan.

Imajina litekeen bezala, formatu horretatik dezente urrunago doa bikote honen eskaintza. Esketxaren, hitz-jolasaren eta serio itxurako datu eta galderen bidez, elkarrengandik urrun baino urrunago, apenas zerikusirik izango ez bagenu bezala bizi garela frogatuko digute barrea eragiteko aitzakian; uste usteletara eta topiko ezin merkeagoetara eraman gaituela elkarren berri ez bilatzeak; nola ez, hizkera eta portaera ezberdintasunak; eta, bai, uste baino frantsestuago dau dela batzuk, eta uste baino espainolduago, besteak. Ikuslea, bestalde, saltsaren osagai bilakatuko da konturatzerako.

Geure neurrira egindako ispilua duzu *Bidaso: Biga so. Ipar Urriak eta Hego Erak* obra; dibertitzeko, ikasteko eta autokritikarako, euskaldun orok aurrean ipini beharko genukeena.

Urriaren 17an eskainiko dute, 20:00etan, Getxoko Torrearen aretoan. ■



*Iparra galdu gabe!* Getxoko zikloak Ipar Euskal Herria ezagutaraztea du helburu. Besteak beste, *Bidaso: Biga so. Ipar Urriak eta Hego Erak* Kike Amonarrizek (behean ezkerrean) eta Pantzo Hirigarai (goian) ondutako hitzaldi umoretsua entzuteko parada izango da.